

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2568

348/2013 DEKRETUA, maiatzaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika eta Tolosako bulego judizialako lanpostu-zerrendak onartzeko dena.

Martxoaren 29ko 68/2011 Dekretuaren bidez, Bulego Judiziala osatzen duten unitate batzue-tako lanpostuen zerrendak onartu ziren.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten alda-ketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Hori dela eta, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, hala jasota baitago Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirila-ren 9koko 188/2013 Dekretuaren 3. artikuluan, eta Jaurlearitzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Dekretu honen eranskinean jasota dauden lanpostuen zerrendatan egindako aldaketak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da dekretu hau indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 14an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA, MAIATZAREN 14ko 348/2013 DEKRETUARENA
LPZren ALDAKETA

Saila: Justizia eta Herri Administrazio Saila.
Zentro kudeatzailea: Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza.
Destinoko Zentroa: Zerbitzu Orokor Prozesal Erkide eta Beteazpenekoa - Bergara.

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Mota	Herria	Betezko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Ezagutza espezifikoa	Hizkuntz-eskakizuna	Hizkuntz-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarria	Oharrak
Aldaketa	680001	36	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	G	Bergara	LO	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo balioidea		2	Urt.-20		2241,96	6763,74	Komunikazio egintzak Guardiak
Aldaketa	680002	18	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	S	Bergara	B.L.	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo balioidea		2	Urt.-10		2241,96	6763,74	Komunikazio egintzak Guardiak
Aldaketa	680002	19	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	S	Bergara	B.L.	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo balioidea		2	Urt.-10		2241,96	6763,74	Komunikazio egintzak Guardiak